

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak enplegu-tailerren irakasleentzako plataforma digital bat aurkeztu du

Webguneak familia profesional, mintegietako programa, eztabaida-foro eta prestakuntzako baliabideen wikiteka-ri buruzko informazioa jasotzen du

Lunes, 29 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak iragan egunetan [i-docent](#) izeneko plataforma aurkeztu du enplegurako prestakuntzako tailerretako irakasleentzat. Aurkezpen-ekitaldia Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Iturondo Prestakuntza Zentroan izan zen.

Webgune berriarekin, Nafarroako Tailer Eskolek hemendik aurrera beren irakasle-taldeentzat eta kudeaketarako lan-tresna berri bat izango dute; haren bidez, ezagutzak handitu, esperientziak partekatu eta proiektuak elkarrekin egin ahal izango dira. Plataformak barnean hartzen ditu: albiste-zerbitzua, familia profesionalen eduki zehatzak, mintegi-programa, eztabaida-foroa, irakasleentzako baliabideen wikiteka, blog-ak, mezularitza eta irakasleen profila.

Nafarroako Gobernuarentzat, enplegurako prestakuntza helburu estrategiko bat da eta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, prestatzaileek baliabide didaktikoak izateko aukera handiagoa izan dezaten bilatzen da; era horretan, lan-merkatuak planteatzen dituen etengabeko erronkei baldintza hobeagoetan aurre egingo zaie. Xede horretarako, webgune berriak profesionaltasun-ziurtagirien eta gaitasun profesionalen katalogoaren informazio eguneratua eskaintzen ditu eta, horri esker, beste eduki batzuen artean, gai profesional zehatzen inguruan foruak nahiz lantaldeak sortzen dira.

I-docent plataforma enplegurako prestakuntzan dauden irakasle-talde batek sortutako proiektua da. Webgunearen aurkezpenean irakur daitekeenez, "enplegurako prestakuntzaren arloan lan egiten duten Nafarroako profesionalentzat da, eta ezagutzako oinarri bateratu bat sortzea bilatzen du; hori bideratuta dago: gure lanbidearen perfektionatze teknikora eta aitortzara, elkarrekin abian jartzea eta esperientziak trukitzea, eta perfektionatze horri lagunduko dioten informazio eta ezagutzako baliabideak erabiltzea".

[I-docent](#) plataforma enplegurako prestakuntzan dauden irakasle-talde batek sortutako proiektua da. Webgunearen aurkezpenean irakur daitekeenez, "enplegurako prestakuntzaren arloan lan egiten duten Nafarroako profesionalentzat da, eta ezagutzako oinarri bateratu bat sortzea bilatzen du; hori bideratuta dago: gure lanbidearen perfektionatze teknikora eta aitortzara, elkarrekin abian jartzea eta esperientziak

trukatzea, eta perfekzionatze horri lagunduko dioten informazio eta ezagutzako baliabideak erabiltzea".